

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

394.000 euro jaso dituzte lau erakundek, ekintzaileak bultzatzeko

Cederna-Garalur elkarteak, Eder Partzuergoak, Teder Elkarteak eta Erdialdeko Partzuergoak dira 620 pertsonaren jarduerak bultzatzeko dutenak

Lunes, 21 de julio de 2014

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, 394.000 euro eman dizkie Cederna-Garalur elkarteari, Eder Partzuergoari, Teder elkarteari eta Erdialdeko partzuergoari ekintzaileak bultzatzeko. 620 pertsona inguru dira, iparraldeko, hegoaldeko, Estellerriko eta Erriberako inguruetakoak.

Honako jarduerak hauek eskaintzen dituzte zerbitzu gisa: inguruetako ekintzaileak identifikatu eta erakartzea; jarrera ekintzailea sustatzeko sentsibilizazio- eta hedapen-ekintzak gauzatzea; ekintzaileei informazio-, aholkularitza- eta trebakuntza-zerbitzuak eskaintzea euren enpresak sortuz, eta sortutako enpresa berriei laguntza ematea lehen bi urteetan.

Zehazki, Cederna-Garalur elkarteak hautatu da iparraldeko ekintzaileei laguntza-zerbitzuak emateko. Horretarako, 155.650 euroko diru-laguntza jasoko du.

Bestalde, EDER partzuergoak Erriberan eskainiko ditu zerbitzu horiek. 99.050 euroko diru-laguntza izango du horretarako.

TEDER elkarteari dagokionez, Estellerriko ekintzaileekin egingo du lan. 70.750 euroko aurrekontua izango du.

Azkenik, Erdialdeko Partzuergoak Tafallako ekintzaileekin arituko da eta 68.385,20 euroko diru-laguntza izango du.

Erakunde onuradun guztiak daude atxikita Ekintzailetza Bultzatzeko Nafarroako Sarera, sare horren barruan modu koordinatuan lan egiteko eta ekintzaileei laguntza osatua emateko, horietako bakoitzari dagokion inguru osoan zerbitzuak eskainita.